Ahora bien: admitimos que el Ayuntamiento es responsable directo de aquellos contratos que realiza para las Novilladas, Embolados y festejos taurinos en los Sanjuanes, además del “tiropichón” con pichón vivo. También en los programas de Sanjuanes (caballos), Olentzero (“Panchica”)… puede actuar con autonomía y decisión de gobierno. Sin embargo en los festejos de barrios en los que es la agrupación correspondiente la que decide el destino de la subvención concedida, es también donde se programan es-

ikuskizunak programatzen dira,

pectáculos que conllevan maltrato a diferentes animales (bueyes, gallos, conejos, ternerillos).

Aurreneko kasuan, Udalak berak egiten dituen kontratuak dira, eta 18.000 €tik gorakoak ez badira ere —kontratu txikien diru-muga— animaliekin egiten diren ikuskizun guztiak kentzearen aldekoak gara, izaki bizia denez animaliak sufritu egiten baitu, edo, gutxienez estualdia eta estresa pairatzen du.

Auzoetan egiten diren jaietan, jaiotarako Udalaren diru-laguntza jasotzen dutenez, ANIMALIARIK EZ ERABILTZEKO konpromisoa idatziz hartu dezaten eskatzen dugu.

Esan behar da baita egunetik egunera jende gutxiago joaten dela ikuskizun horietara, eta irizi publikoaren gehiengoa ere, horrelakoak finantzatzeko diru publikoa erabiltzearen kontra azaltzen da. Jendeari galdaketa bat egingo bagenio, ziur aski, hiru laurdenetik gora, animaliei tratu txarrak ematen dizkien ikuskizunetan diru publikoa erabiltzearen kontra azalduko litzateke. Interesgarria izango litzateke galdeketa hori eibartarrei egitea eta eztabaida serio bat sustatzea gai horren

En el primer caso de contratos directos del Ayuntamiento, y aunque no superen los 18.000€ como límite de contrato menor, abogamos por la supresión de todos los espectáculos que se realizan en torno a un animal que sufre como ser vivo que es, cuando menos, de agobio y estrés.

En el caso de los festejos populares en barrios, pedimos que se comprometan por escrito a la NO UTILIZACIÓN, NI USO de ningún animal para los festejos de ese barrio por haber sido beneficiado con la subvención del Ayuntamiento.

Constatamos, sin embargo, que cada vez gozan de menos asistencia y con una opinión pública mayoritariamente contraria a la utilización del dinero público para su financiación. Si hiciéramos una encuesta a la población, probablemente nos encontraríamos que más de tres cuartos de ella se declararía contraria a que el dinero público se destine a espectáculos donde se maltrata a animales. Sería interesante realizar este sondeo a eibarresas y eibarreses y promover un debate serio

inguruan herritarrei parte-hartzeko deia eginez,
Bestalde, gure iritziz, udal batek ez du diruz lagundu behar ikusleen artean umeak dituen horrelako ikuskizunik, izan ere, umeen adinagatik, animaliekiko hartu-emana adiskidetsuagoa izan behar da, ez hain oldarkorra. Tratu txarreko ikuskizun horiek umeen aurrean egiten direnean, suntsitu egiten da adingabeek animaliekiko duten enpatia, eta haurren alorreko autoritate nagusienaren gomendioari, NBEko Umeen Eskubideen aldeko Batzordeari, entzungor egiten zaio, Portugalen (2014), Kolonbian (2015) eta orain dela denbora gutxi Mexikon egin dituen bilkuretan, gobernuei, Batzorde horrek adingabeak "animalien kontrako tratu txarren bortizkeria fisiko eta mental"etik babestera behartu baititu. Umeen Babeserako Kontseilu Independenteak ere bat egin du eskaera horrekin."

convocando a la participación ciudadana en torno a este tema.
Por otra parte entendemos también que un municipio no debe subvencionar un espectáculo en el que, en su público, se encuentren niños y niñas que, en su corta edad, deben entender una relación más amistosa y menos agresiva con los animales. Los espectáculos de maltrato ante esta población infantil destruye la empatía natural de los menores hacia los animales y desoye la recomendación de la máxima autoridad en temas de infancia, el comité de Derechos del Niño de la ONU, que en sus revisiones a Portugal (2014), Colombia (2015) y, recientemente, México ha instado a los gobiernos a proteger a los menores de la "violencia física y mental del maltrato animal". También el Consejo Independiente de Protección de la Infancia se ha unido a esta petición."

Lamarain andreak hartu du hitza. Esaten du Talde guztiek izenpetu dutela erdibideko mozioa; beraz, eurak ados daudela mozioarekin, baina lehen esan duten moduan, pentsatu beharra dago mozioen kontu hau, azkeneko mementoan erdibideko moziorik eta

Interviene la señora Lamarain quien afirma que todos los Grupos han firmado la transaccional, y que por tanto, están de acuerdo con la moción, pero que ya han dicho anteriormente que hay que pensar qué tratamiento dar a las mociones para no presentar tran-

mozio alternatiborik aurkezten ez ibiltzeko.

saccionales y alternativas en el último momento.

Ondoren Mendicute jaunak hartu du hitza. Esaten du Idazkariak jatorrizko mozioaren oinarria irakurri duela gauza argitzeko, baina hemen onartzen dena denen artean adostutako testu hori dela, erdibideko testua.

Joan zen urteko arazoan, dio, bere Taldeak Animaliak Edukitzeko Ordenantza eguneratzea eskatu zuen, hogeita zortzi urte dituelako eta eguneratze-premia duelako, eta erdibideko mozioa sar daitekeen kontu bat da.

Interviene a continuación el señor Mendicute quien afirma que la Secretaria ha leído el fundamento de la moción originaria para aclarar, pero que lo que se aprueba es el texto transaccionado.

En noviembre del año pasado, continúa, su Grupo solicitó actualizar la ordenanza de tenencia de animales ya que tiene veintiocho años y precisa actualizarse, siendo la moción transaccional un tema que se podría introducir.

Gaineratzen du bere Taldeak mozioa babestuko duela gaiak gizarte-gatazka bat planteatzen duelako, Udal Taldeen aldetik osaketa-lan bat egitea eskatzen duena.

Amaitzeko baietsi du beraiek batzorde bat eratzeko proposamena egin zutela, Udalbatzak proposamen hura onartu zuela eta beraiek oraindik ere hura planteatzen segitzen dutela, eta ikasturte politikoaren hasierako honetan batzordea martxan jartzea espero dutela, ahalik eta akordiorik zabalenera iristeko.

Añade que su Grupo apoyará la moción porque el tema plantea un conflicto social que requiere de un trabajo de recomposición por parte de los grupos municipales.

Finaliza afirmando que propusieron la constitución de una comisión, que fue aprobada por el pleno, que la siguen planteando, y que esperan que en este comienzo del curso político se ponga en marcha para llegar a un acuerdo lo más amplio posible.

Ondoren, Aguirre andreak hartu du hitza. Esaten du ados dagoela animaliei eragiten dizkien gauza guztien ingurukoak presaka heldu behar izate horrekin, eta beste leku batzuetako ordenantzak ere eskuratu dituela; eta, bere iritziz, animalien gaia luze bezain zabal tratatu beharko lukeela ordenantzak.

Interviene a continuación la señora Aguirre quien afirma que comparte la prisa en abordar todo lo que afecta a los animales y que ha conseguido ordenanzas de otros lugares, y que considera que la ordenanza debería de abarcar ampliamente el tema de los animales.

Ondoren Alkate jaunak hartu du hitza. Esaten du ados dagoela Lamarain andreak esandakoarekin, eta denak ados badaude, Bozeramaileen Batzarrerako deia luzatuko duela prozedura bat ezarri ahal izateko.

Gaineratzen du aurkeztutako mozioaren aurrean bere Taldeak erdibideko testu bat aurkeztu zuela, jatorrizko testua noraino iristen den jakiterik ez zegoelako, eta animaliekin egiten diren edozein jarduerari eragin diezaiokeela.

Zehaztasun osoz aztertu beharko litzateke gai hau, dio Alkateak, eta ikusi zeintzuk diren Udalak lagundu ezin ditzakeen jarduerak; eta, nola ez, kontuan hartuko dira beste leku batzuetako ordenantzak.

Interviene a continuación el señor Alcalde quien afirma que está de acuerdo con lo dicho por la señora Lamarain y que si se está de acuerdo, convocará una Junta de Portavoces para poder establecer un procedimiento.

Añade que a la moción presentada su Grupo propuso un texto transaccionado porque consideraba que no se podía ver el alcance del texto original y que podría afectar a cualquier actividad que se haga con animales.

Habría que analizar detenidamente, prosigue, y ver cuáles son las actividades en las que el Ayuntamiento no debe de colaborar, y lógicamente se tomarán como referencia ordenanzas de otros lugares.

Berriro Aguirre andreak hartu du hitza. Esaten du “tortura ez da kultura” adierazpenetik abiatuta, mozioaren asmoa hauxe dela: diru publikoa ez zuzentzea tratu txarrak emateko aukerarik dagoen jarduerетara, nahiz eta, badaki, batzuetan zaila izan tratu txarra non dagoen zehaztea.

Interviene de nuevo la señora Aguirre quien afirma que a partir de la expresión “la tortura no es cultura” la intencionalidad de la moción es que el dinero público no se dedique a actividades donde haya posibilidad de maltrato, aunque ya sabe que a veces es difícil definir dónde está el maltrato.

Alkate jaunak dio horregatik uste duela berak Udalak egiten dituen jardueren balorazio bat egin behar dela, oso eztabaidagarria izango litzatekelako, esate baterako, sanjuanetan zaldirik ez egotea.

Indica el señor Alcalde que por ello cree que hay que hacer una valoración de las actividades del ayuntamiento, porque sería muy discutible por ejemplo que no hubiese caballos en San Juanes.

Ondoren, berriro, Mendicute jaunak hartu du hitza. Esaten du ahaztu egin zaiola adieraztea bere Taldeak mozioaren aldeko botoa emango duela, eta Alkate jaunak esandakoarekin ere bat datorrela: erdibideko mozioak eta mozio alternatiboak aurkezteko arauak ezarri behar direla, baina bere Taldea aspalditik dabilela esaten Udal Araudia zaharkitua dagoela eta adostasun bat lortu behar dela Araudi berri batekin, non gai hori sartuko litzatekeen.

Interviene de nuevo el señor Mendicute para decir que se le había olvidado indicar que su Grupo votará a favor de la moción y que también comparte lo manifestado por el señor Alcalde de que hay que regular la presentación de mociones transaccionales y alternativas, pero que su Grupo viene diciendo que el Reglamento Municipal está anticuado y que hay que lograr un consenso con un nuevo Reglamento, en el que se introduciría este tema.

Aurretik irakurritako erdibideko mozio hori botaziopean jarrita, aho batez onartu da.

Sometida a votación la moción transaccional leída anteriormente, se aprueba por unanimidad.

7. ATALA.

PUNTO 7º

EAJ-PNV Taldeak aurkeztu duen mozioa Udal Gobernuaren Programa aurkezteari buruz.

Moción presentada por el Grupo EAJ-PNV sobre la presentación del Programa de Gobierno Municipal.

Idazkariak testu hau irakurri du:

La Secretaria da lectura al siguiente texto:

"Eibarko EAJ-PNV udal taldeak honako MOZIO hau aurkezten du, Udal Gobernu Programa aurkezteari buruz.

"El grupo municipal Eibarko EAJ-PNV presenta la siguiente MOCIÓN sobre la presentación del Programa de Gobierno Municipal.

ZIOA

JUSTIFICACIÓN

15 hilabete bete dira Alkateak bere kargua hartu zuenetik, eta oraindik ere ez du bere Gobernu Programa aurkeztu. Udal Gobernuaren lanaren jarraipena eta bultzada Udalbatzako talde politikoon lana izanik, lan horretarako ezinbesteko tresna da Udal Gobernu Programa ezagutzea. Hori dela eta, Eibarko EAJ-PNV udal taldeak honako mozio hau aurkezten du:

Han pasado 15 meses desde que el Alcalde tomara posesión de su cargo, sin haber presentado su Programa de Gobierno. Siendo el control e impulso del Gobierno Municipal una tarea de los grupos políticos de la Corporación, el Programa de Gobierno constituye para dicha tarea una herramienta imprescindible, por lo que el grupo municipal Eibarko EAJ-PNV presenta la siguiente moción:

MOZIOA

Eibarko Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio aurkeztu eta argitara eman dezala 2015-2019 agintaldirako Programa, non kronograma batean jasoko diren aurrera eraman asmo dituen ekimenak."

Alkate jaunak dio programa hori argitaratuta dagoela.

Mendicute jaunak hartu du hitza; hasteko, esan du Alkate jaunari eta Gobernu-taldeari eskertu egiten diela programa argitara ematea mozioa Udal Osoko bilkuran aurkeztu denean.

Bere Taldea, dio Mendicute jaunak, aspalditik dabil gobernu-programa aurkeztu dadin eskatzen, eta Udalbatzan ere egin du eskaera hori. Bere sasoian, Alkate jaunak erantzun zien Gobernu-taldea alderdi bakar batek osatzen zuela, eta hauteskundeak irabazi zituela hauteskunde-programa batekin; huraxe izango zela gobernu-programa.

Gaineratzen du bere Taldeari gober-

MOCIÓN

El Pleno del Ayuntamiento de Eibar insta al Gobierno Municipal a presentar y publicar el Programa para el mandato 2015-2019, donde se recojan en un cronograma las iniciativas a desarrollar."

Afirma el señor Alcalde que el programa ya está publicado.

Interviene el señor Mendicute quien comienza diciendo que agradece al señor Alcalde y al Equipo de Gobierno que publique el programa cuando se presenta en el Pleno la moción.

Su Grupo, prosigue, desde hace tiempo viene pidiendo que se presente el programa de gobierno, y lo ha hecho también en Pleno, y en su día el señor Alcalde les respondió que no hacía falta, que el Equipo de Gobierno estaba formado por un solo partido, y que ganó las elecciones con un programa electoral que sería el programa de gobierno.

Añade que a su Grupo le parece que

nu-programa bat zerbait serioagoa dela: plangintza bat islatu behar du; eta hauteskundeez gain, erakundeak, egingo dituen jarduerak, herritarren eskura jarri behar dituela, epeak finkatuz, erakunde bati horrek ematen baitio konfiantza eta sendotasuna, eta horixe da gobernu batek duen gardentasunaren adierazlea.

Geroxeago dio Mendicute jaunak horretan Urkullu lehendakaria jarraitu beharreko eredu dela, Lehendakaritzara iritsi eta ehun egunera aurkeztu zuelako gobernu-programa, 31 jarduketa-esparru, 163 helburu eta 629 ekimen zehatz zituena; mila egun bete zituenean karguan, 629 ekimen horien jarduketak aurkeztu zituen.

Gobernu-programan, dio, enplegua sortzeko egingo diren jardueak daude jasota; eta batzuetan gertatu izan da, dio, bere Taldeak edo oposizioko beste Talderen batek proposamen bat aurkeztu eta gobernu-taldeak hori egitea pentsatua zuela esatea, eta gainerako udalbatzarkideek horren berri ez izatea.

Txorroko urarenarekin ere horixe gertatu zen, Irabazik mozioa aurkeztu eta gobernu-taldeak horretan ari zela lanean esan baitzuen.

un programa de gobierno es algo más serio que debe de reflejar una planificación, y que aparte de las elecciones, la institución tiene que poner a disposición de los ciudadanos qué actuaciones se plantean, fijando los tiempos, pues es esto lo que da fijeza y confianza a una institución, y es indicador de la transparencia de un gobierno.

Dice más adelante que en este sentido el Lehendakari Urkullu es modelo a seguir, pues a los cien días de llegar a la Lehendakaritza presentó el programa de gobierno que contenía 31 ámbitos de actuación, 163 objetivos y 629 iniciativas concretas, y pasados mil días presentó las actuaciones de esas 629 iniciativas.

En el programa de gobierno, prosigue, se pueden recoger las actuaciones que se van a llevar a cabo para crear empleo, y que a veces ha ocurrido que cuando su Grupo, u otro de la oposición, presentan una propuesta se les dice por el equipo de gobierno que ya pensaba hacerlo, pero sin embargo, el resto de la corporación no tenía conocimiento de ello.

Con tema del agua de grifo, continúa, ocurrió esto, pues Irabazi presentó la moción y el equipo de gobierno dijo que ya trabajaba en ello.

Mendicute jaunak gaineratzen du gobernu-programarekin askoz eraginga-rriagoa izan daitekeela gainerako taldeen lana, zinegotziek eta Alkateak, denek nahi dutena herriaren ongizatea delako; beraz, guztien proposamenak ezagutuz gero, lana errazagoa izango da.

Afirma así mismo que con el programa de gobierno al labor del resto de los grupos puede ser más productiva, pues todos los concejales y el Alcalde lo que desean es el bienestar para el pueblo, y si se conocen las propuestas de todos, el trabajo será más fácil.

Ez da ona, lehen esan duen bezala, luzamendutan ibiltzea, gaiak geroko uztea. Eta edozein kasutan ere, bere Taldeak ez du gobernu-programa irakurtzeko aukerarik izan; baina jarritakoa irakurriko dute, jakina. Gaineratu du eutsi egiten diotela aurkeztutako mozioari.

Tal como ha dicho antes, prosigue, no es bueno alargar los temas. Y en todo caso no ha tenido su Grupo oportunidad de leer el programa, que lo leerán, y añade que mantienen la moción.

Azkenik baieztatu du berak hauxe uste duela: programa argitaratu bada, Talde sozialista mozioak dioenarekin ados dagoela izango delako dela, eta Irabazi eta Bildu taldeei ere mozioaren alde egitea eskatzen dietela, haien lana erraztu dadin.

Finaliza afirmando que piensa que si se ha publicado el programa es porque el grupo socialista está de acuerdo con lo que dice la moción, y que solicita a Irabazi y a Bildu que apoyen también la moción, para facilitar su trabajo.

Alkate jaunak hartu du hitza. Mendicute jaunari esaten dio ez duela ez dakien ezer topatuko, 2015eko uztailetik dutelako bai PNV taldeak, nahiz Bilduk, nahiz Irabazik, ez hauteskunde-programa, baizik eta Alderdi So-

Interviene el señor Alcalde quien dice al señor Mendicute que no va a encontrar nada que no sepa ya que desde julio de 2015, tanto el grupo PNV como Bildu, e Irabazi tienen, no la propaganda electoral, sino el programa

zialistaren programa, eta ez da gauza bera. Esaten du programa horrek berrehun ekimen baino gehiago dituela, negoziatu eta, areago, egin ere egin zirelako, agintaldiko programak izan zitezkeen dokumentuak. Baina hori ezinezkoa izan zenez, Alderdi Sozialistaren programa bilakatu zen gobernu-programa.

del Partido Socialista; que no es lo mismo, y que este programa tiene más de doscientas iniciativas pues se negoció e incluso se elaboraron documentos que podrían haber sido programas de legislatura; pero que ello no fue posible por lo que el programa del Partido Socialista se convirtió en el programa de gobierno.

Alkate jaunak jarraitu du esaten taldeen aldetik egiten den kontrola eta sustatze-lana dokumentu honekin egin zitekeela, eta hala ari dela egiten. Beste kontu bat da dokumentu horri denboraren bilakabidera egokitzeko klausula eranstea; testuinguru sozioekonomikora egokitzea; proposamenen bidegarritasuna moldatzera; baita beste alderdi batzuen aldetik etor daitezkeen proposamen berrietara ere; hiritarrek egin ditzaketen proposamenetara edo egokiera-irizpideetara egokitzea.

El control e impulso por parte de los grupos, continúa, se podía haber hecho ya, y de hecho ya se está haciendo con este documento, y que otra cosa es que al documento se incorpore la cláusula de la sujeción al devenir del tiempo, al contexto socioeconómico, a la viabilidad de las propuestas, así como a nuevas propuestas que puedan ir surgiendo por otros partidos, por la ciudadanía, o por criterios de oportunidad.

Alkateak berresten du programa gainerako Taldeei entregatu zietela, eta horiek ere horrela egin zutela. Gaineratzen du berak badakiela zein izango litzatekeen alderdi jeltzalearen proposamena hark gobernatuko balu, eta, areago oraindik: jakin ahal izango

Reitera que entregaron el programa al resto de los grupos, a la par que éstos también lo hicieron y añade que él conoce cuál sería la propuesta del partido nacionalista si gobernara y que incluso podría saber cuál sería su programa de legislatura.

lukeela baita zein izango litzatekeen haren agintaldiko programa.

Beste gauza bat da, dio Alkateak, dokumentu hori herritarrei ezagutzera ematea, baina udal eginkizunetarako, dokumentua bazegoela.

Otra cosa es, concluye, que el documento se dé a conocer a la ciudadanía, pero aclara que para la labor municipal ya se disponía del documento.

Mendicute jaunak hartu du berriro hitza, eta esaten du berak ez duela uste, Alderdi Jeltzaleak Udalari Alderdi Sozialistaren hauteskunde-programa udal webgunean jartzeko eskaera sekula egingo liokeenik, ez delako bidezkoa, beste alderdi politiko baten hauteskunde-programa gobernu-programa bilakatuta, alderdi politiko batek erakunde bati hauteskunde-programa eskegitzeko eskaera egitea.

Interviene de nuevo el señor Mendicute, para decir que cree que el Partido Nacionalista jamás hubiera pedido al ayuntamiento que cuelgue en el web municipal el programa electoral del Partido Socialista ya que no procede que un partido político pida que una institución cuelgue el programa electoral convertido en programa de gobierno de otro partido político.

Gobernu-programa eta hauteskunde-programa, gaineratzen du Mendicute jaunak, ez dira gauza bera, Patxi Lópezek baietz, gauza bera zela zioen arren: bere gobernu-programa, hauteskundeak irabazteko erabili zuen hauteskunde-programa zela.

El programa de gobierno y el programa electoral, añade, no son la misma cosa, aunque Patxi López decía que sí era lo mismo, que su programa de gobierno era el programa electoral con el que había ganado las elecciones.

Mendicute jaunak dio aurreraxeago Alkateak arrazoia eman diola hauteskunde-proposamenetan jasotzeke zeuden elementu batzuk sartu direla

Dice más adelante que en parte, el señor Alcalde le ha dado la razón al decir que se han incorporado ciertos elementos que no estaban recogidos

esatean.
Amaitzeko esan du hala dela, bere Taldeak dokumentuak eskura dituela, eta beraiek ere aurrera atera nahi zituzten ekimenak e aurkeztu zituztela; eta, gaineratzen du, dokumentu hura gobernu-programa bilakatuko zutlea, baina dokumentu askoz osagtuago bat eta agintaldi osoko kronograma batekin; gobernu-programa erakundearena izan behar dela ez alderdi politiko batena.

en las propuestas electorales.
Finaliza afirmando que en efecto, dispone su Grupo de los documentos, al igual que ellos también presentaron cuáles eran las iniciativas que deseaban llevar a cabo, y añade que lo hubieran convertido en programa de gobierno, pero en un documento bastante más completo y con un cronograma de legislatura, y que tiene que ser institucional y no de un partido político.

Alkate jaunak hartu du hitza. Esaten du batzuetan ez dakiela berak gauzak txarto azaltzen dituen edo Mendicute jaunak, nahitan, txarto ulertzen dituen; berak ez duelako esan webgunean alderdi sozialistaren hauteskunde-programa eskegi duenik, berak esan duena hauxe izan da: alderdi politiko batek bakarrik gobernatzen duenean, hauteskundeetan herritarrei egin izan dizkien proposamenak izaten direla gobernu-kudeaketarako konpromisoak, eta alderdiaren hauteskunde-programa bilakatu dela bere gobernu-programa, bakarrik daudelako.

Interviene el Sr. Alcalde quien manifiesta que a veces no sabe si él se explica mal, o el señor Mendicute entiende mal queriendo, pues él no ha dicho que ha colgado en la web el programa electoral del partido socialista; sino que cuando un partido gobierna solo, las propuestas que ha hecho a la ciudadanía en elecciones son sus compromisos para la gestión de gobierno, y que su programa electoral se ha transformado en su programa de gobierno, ya que están solos.

Beste talde batzuekin gobernatuko balu, gaineratzen du Alkateak, nabaria den bezala, biena edo hirurena bilduko lukeen dokumentu bat egin

Si gobernara con otros grupos, añade, obviamente hubiese tenido que hacer un documento que sumase lo de los dos o los tres, y que sería distinto del

behar izango luke, eta horrek ez luke zerikusirik izango haietako bakoitzaren hauteskunde-programarekin, desberdina izango litzateke.

programa electoral de cada uno de ellos.

Alkateak dio berak ez duela esan programan beste ekimen batzuk txertatuko direnik: paragrafo bat sartu da, hor biltzen dena ez dela izango egingo den gauza bakarra esaten, beste ekimen batzuk ere sar daitezkeela.

Tampoco ha dicho, continúa, que el programa incorporará otras iniciativas; sino que se ha introducido un párrafo en el que se dice que lo que se recoge no es lo único que se va a hacer, sino que podrán surgir otras iniciativas.

Mendicute jaunak dio ez duela ezagutzen dokumentua eta aztertuko duela; ez dela sartuko min egin dioten beste balorazio batzuetan.

El señor Mendicute afirma que no conoce el documento y lo analizará, sin entrar en otro tipo de valoraciones que le han molestado.

Alkate jaunak adierazten du min egin badio barkamena eskatzen diola, baina berari ere min egiten diotela esaten diren gauza batzuk.

Indica el señor Alcalde que si ha molestado, pide disculpas, pero que también le molestan algunos comentarios que se hacen.

Mendicute jaunak berriro hitza hartu du, eta esaten du bere Taldeak egin duen kritika bakarra izandako atzerapenarena izan dela, eta atzerapen hori nabaria dela, Udala orain dela hamabost hile eratu delako eta beraiek ia urtebete daramatelako programa argitara dadin eskatzen, gainerako

El señor Mendicute vuelve a intervenir para decir que la única crítica de su Grupo ha sido el retraso habido y que es evidente pues el Ayuntamiento se constituyó hace quince meses, y llevan casi un año pidiendo la publicación del programa, para compartirlo con el resto de los grupos, y solicita que no se le

taldeekin partekatzeko. Eskatzen du ez diezaiola esan demagogia egitea denik, orain dela urtebetetik dabilelako eskatzen, eta, hara: mozioa aurkeztu dutenean argitaratu da.

diga que es demagogia cuando se está pidiendo desde hace un año y resulta que se publica cundo se presenta la moción.

Alkate jaunak dio berak ez duela esan Mendicute jauna demagogoa denik, baizik eta, bere ikuspegitik, demagogia egiten ari dela, eskura duen erreminta bat eskatzen dabilelako.

Indica el señor Alcalde que él no ha dicho que el señor Mendicute sea demagogo; sino que bajo su punto de vista, está haciendo demagogia porque está pidiendo una herramienta que ya tiene.

Lamarain andreak hartu du hitza. Esan du hala dela, Taldeek badutela programa, baina programa argitara ematea eta herritarrek ezagutzea, ongietorria ematekoa dela.
Gaineratzen du horixe dela gardentasunaren eredu bat, eta une honetaz baliatu nahi duela gardentasunaren ordenantzari buruz galdetzeko, urtebete daramatelako horretan.
Amaitzeko esan du mozioari eusten bazaio bere taldeak aldeko botoa emango duela.

Interviene la señora Lamarain para decir que es verdad que los grupos ya disponen del programa; pero que el que se publique y lo conozcan los ciudadanos, es bienvenido.
Añade que esto es una muestra de la transparencia y que aprovecha la ocasión para preguntar sobre la ordenanza de transparencia, pues se lleva casi un año en ello.
Concluye que si se mantiene la moción, su grupo la apoyará.

Mozioa bozkatu da eta aho batez onartu.

Sometida a votación la moción, se aprueba por unanimidad.

8. ATALA.- Galderak eta erreguak.

- Aguirre andrearena, bere Taldeak Arraguetako aparkalekuarena planteatu zuenean hauxe esan zitzaiola azaltzen: oraindik ez zegoela akordiorik hango jabeekin eta gaia ez zegokiola Udalbatzari; beraz, berak nahiko lukeela jakin, gaia Hirigintza Batzordean tratatzen bada, nola bideratu dezakeen gai hori berak egindako proposamena aurrera ateratzeko eta Talde guztiek gaiaren inguruko iritzia eman ahal izan dezaten.

Alkate jaunak dio akordioak hartzeko administrazio-prozedura beteko dela, eta Taldeek iritzia emango dutela eta bozkatu egingo dutela tokatzen zaienean.
Gaineratzen du ez dakiela zein organori dagokion esparru horren aldi baterako erabilera finkatzea, eta eskumena duen organoa zein den jakin ondoren, Udal Taldeek, modu batera edo bestera, parte hartuko dutela.

Aguirre andreak adierazi du gaia Hirigintza Batzordean tratatuko zela esan zitzaiela, baina ez dakiela bere ondo-

PUNTO 8º Ruegos y preguntas.

- La de la señora Aguirre indicando que cuando su Grupo planteó el tema del parquin de Arragueta, se les dijo que todavía no se había llegado a un acuerdo con la propiedad y que el tema no era de Pleno; por lo que le gustaría saber que si el tema se aborda en la Comisión de Urbanismo cómo se puede canalizar para que su propuesta vaya adelante y todos los grupos puedan opinar sobre el tema.

Afirma el señor Alcalde que se seguirá el procedimiento administrativo sobre la adopción de acuerdos y que los grupos opinarán y votarán cuando les toque.
Añade que no sabe a qué órgano corresponde fijar el uso provisional del ámbito, y que depende de cuál sea el órgano competente, los grupos municipales participarán de una u otra manera.

Indica la señora Aguirre que se les dijo que se abordaría en la Comisión de Urbanismo, pero que desconoce la

rioek nolako indarra izan dezaketen.

fuerza que puedan tener sus conclusiones.

Alkate jaunak erantzun du, azkenean, Gobernu Batzarra bada erabakitzen duela, Hirigintza Batzordeari entzungo diola, baina Batzarra subiranoa izango dela erabakia hartzeko.

Contesta el señor Alcalde que si finalmente es la Junta de Gobierno la que decide, escuchará a la Comisión de Urbanismo, pero que será la Junta la soberana para adoptar la decisión.

Mendicute jaunak hartu du hitza, bere Taldeak, gaiaren inguruko proposamen bat aurkeztu zuela esateko, hain zuzen ere, Hirigintza Batzordean akordio batera heltzeko proposamena, eta horrek esan nahi duena da —dio— Gobernu Batzarra bada eskumena duena, Hirigintza Batzordean eztabaidatu eta akordio batera iristeko aukera egon dadila, horretarako borondate politikorik badago behintzat. Esaten du gaiaren inguruan hainbat proposamen daudela, baina akordio batera heltzen ahalegindu beharra dagoela.

Interviene el señor Mendicute para decir que su Grupo presentó una propuesta sobre el tema y que era llegar a un acuerdo en la Comisión de Urbanismo; lo que quiere decir que si la competente es la Junta de Gobierno, haya la posibilidad de debatir y de llegar a un acuerdo en la Comisión de Urbanismo, si es que hay voluntad política para ello; que hay diferentes propuestas, pero que hay que intentar llegar a un acuerdo.

- Mendicute jaunarena, Vildosolaren txaletaren kontu horretan aurrerapenik izan den galdetzen. Bestalde, NANa egiteko bulegoa udaletxera etorri behar zela esan zietenez, Mendicute jaunak galdetu du horren inguruan zer

- La del señor Mendicute preguntando si se han dado avances en el tema del chalet de Vildosola, y que dado que se les dijo que vendría al Ayuntamiento la oficina de expedición del DNI, pregunta por las gestiones que se han

gestio egin den.

hecho al respecto.

Telleria andreak erantzun du eta Vildosolaren txaletari buruz, esan du dokumentu bat noiz sinatuko zain daudela, eta hori ez dagoela Udalaren esku.

Contesta la señora Telleria que en cuanto al tema del chalet de Vildosola, todavía se está a la espera de la firma de un documento que no está en manos del Ayuntamiento.

Alkate jaunak erantzuten du, eta NA-Nari buruz dio Bozeramaileen Batzar bat deitzeko asmoa duela, Udal barruan ere gauza batzuk mugitu egin behar direlako, eta horren berri, lehenik, Taldeek eduki behar dutela, eta, ondoren, Sailetako arduradunek.

Contesta el señor Alcalde que en cuanto al DNI, tiene intención de convocar una Junta de Portavoces, ya que hay que hacer movimientos internos dentro del Ayuntamiento, y primero lo tienen que saber los Grupos, y luego los responsables de área.

- Ibañez andrearena. Esaten du uztaileko Udal Osoko bilkuran oraindik jasotzeke zeuden diru-laguntza batzuez hitz egin zela, 900.000 euro inguru aipatu ziren, egin ezin izan ziren obra batzuen menpe zegoelako, eta berak, gaurkorako egoera bideratuta egongo zelako itxaropena zuela, baina berak badakiela hori ez dela horrela eta horregatik eskatzen duela informazioa.

- La de la señora Ibañez afirmando que en el Pleno de julio se dijo que había subvenciones del 2015 que no se habían recibido, se hablaba de unos 900.000 euros, porque estaba pendiente de obras que no se habían podido ejecutar, y que tenía la esperanza de que a día de hoy se hubiera reconducido la situación, pero que le consta que no es así, por lo que solicita información.

Gaineratzen du, akaso, arazoa hauxe izan litekela: gauza larregi egitea nahi eta heldu ez.

Añade que igual el problema es que se desea hacer demasiadas cosas y luego no se llega.

Alkate jaunak erantzun du eta esaten du Eusko Jaurlaritzaren konpromisoa duela, hain zuzen ere, Ogasun Sailburuordearena; barruko tramite batzuk egiteko zain daudela esan dio, baina dirua jaulkiko dela.
Gaineratzen du obrak eginda daudela, eta zain daudela, Eusko Jaurlaritzak egin behar dituen tramiteak egiteko zain.

Contesta el señor Alcalde que tiene el compromiso del Gobierno vasco, en concreto del Viceconsejero de Hacienda, de que están pendientes de realizar unos trámites internos, pero que se librará el dinero.
Añade que las obras están ejecutadas y que se está a la espera de que el Gobierno Vasco haga sus trámites.

- Ibañez andrearena. Esaten du, uztaileko bilkuran, Debegesa pobrezia energetikoari buruzko proiektu bat egiten ari zela aipatu zela, eta Alkate jaunak jakinaren gainean jartzeko konpromisoa hartu zuela. Beraz, horri buruzko informazioa nahiko lukeela eduki.

- La de la señora Ibañez diciendo que en la sesión plenaria del mes de julio se comentó que Debegesa estaba realizando un proyecto sobre pobreza energética, y el señor Alcalde adquirió el compromiso de que se enteraría, por lo que le gustaría disponer de información al respecto.

Alkate jaunak erantzun du esaten ez duela ezer egin horretaz, baina Bozeramaileen Batzordean azaldu nahi duela gai hori.

Contesta el señor Alcalde que no ha realizado ninguna gestión, pero que desea comentar sobre el tema en la Junta de Portavoces.

- Ibañez andrearena. Esaten du erdibideko mozioentzako prozedura zehaztu beharra dagoen moduan, beste prozedura bat zehaztu beharko litzatekela gai berberaren inguruan behin eta be-

- La de la señora Ibañez indicando que al igual que hay que tratar el procedimiento para las mociones transaccionales, habría que tratar de un procedimiento para no tener que estar

rriz galdezka ibili beharrik ez edukitzeko.

repetidamente preguntando sobre el mismo tema.

Alkate jaunak erantzuten du, erantzuna jasotzen duenaren gustukoa izateak edo ez izateak baldintzatzen duela.

Responde el señor Alcalde que depende de si la respuesta satisface o no a quien la propone.

Ibañez andreak dio, agian, batzordeetan bertan esan beharko litzatekeela han tratatutako gaiak egikaritu edo burutu diren, eta berak ez duela bere gustuko erantzunik jaso nahi, erantzutea baizik.

Afirma la señora Ibañez que igual se trata de que se dé cuenta en las propias comisiones de los temas cuestionados y de cuándo se ejecutan, y que ella no pretende respuesta satisfactoria; sino que se le responda.

Alkate jaunak adierazten du beti ahalegindu dela galderei erantzuten, baina bai, gai hori arautu egin beharko litzatekela.

Indica el señor Alcalde que siempre ha tratado de responder a las preguntas, pero que sí que es un tema que habría de regularse.

- Lamarain andrearena. Esan du ez dela hau lehenengo aldia bere Taldeak kontratuetan klausula sozialak sartzeko premia planteatzen duena; Udal Osoko bilkura honek batzorde misto bat sortzea erabaki zuela gaia aztertzeko, baina, orain arte behintzat, ez dela batzorde hori eratu. Akordio hura hartu zenetik kontratu asko sinatu dira klausula horiek sartzeke. Horregatik,

- La de la señora Lamarain diciendo que no es la primera vez que su Grupo plantea la necesidad de incluir cláusulas sociales en los contratos, que por este Pleno se acordó crear una comisión mixta para estudiar el tema, pero que de momento, no se ha constituido la misma, y que desde que se adoptó el acuerdo se han formalizado muchos contratos, sin inclusión

batzordea lehenbailehen eratzea nahiko lukete.

de estas cláusulas; por lo que les gustaría que se constituyese la comisión cuando antes.

Alkate jaunak erantzun du bihar bertan duela bilera bat Kontratazio Ataleko teknikariarekin eta batzorde hori egiteko egun bat jartzeko eskatu behar diola, eta, horretarako, Talde bakoitzak ordezkari bat izendatzea eskatuko duela.

Contesta el señor Alcalde que mañana precisamente tiene una reunión con el técnico de contratación y que le va a proponer fijar una fecha para la celebración de esta comisión; y que al efecto solicitará que cada grupo designe un representante.

Eta gainerantzeko gairik ez dagoenez, eta gaueko bederatziak eta hamar izanik, Alkate jaunak bilera altxatzen du, guzi honetaz, nik Idazkari Orokorrak fede ematen dudalarik.

Y no habiendo más asuntos que tratar, y siendo las veintiún horas diez minutos, el Sr. Alcalde levanta la Sesión, de todo lo cual yo, la Secretaria General, doy fe.